

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

#### **351/2025 Foru Agindua, ekainaren 11koa. Amaiera ematea Añanako, Erriberagoitiko, Iruña Okako eta Vitoria-Gasteizko udalerrri arabarretako lurzoru urbanizaezinean Cantoblanco parke eolikoaren plan berezia gauzatzeko izapideen prozedurari**

2023ko maiatzaren 8an, Euskal Haizie SLri eskatu zuen Arabako Foru Aldundiak esku harrezala Cantoblanco parke eolikoaren plan bereziaren izapideetan, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, eragindako udalerrien artean ez baitzegoen akordiorik.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren maiatzaren 25eko 127/2023 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen Cantoblanco parke eolikoaren plan bereziaren eraginpean diren udalei hiru hilabeteko epea ematea akordio bat lortzeko, zeinaren bidez haietako batek bere gain hartuko baitzituen haren izapidetzea eta onespena.

Akordiorik ez zegoenez, Lurralde Oreakaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren irailaren 7ko 38/2023 Foru Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion plan berezia izapidetzeko prozedurari, eta, era berean, haren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura arruntari hasiera emateko eskatu zitzaion Arabako Foru Aldundiari.

2024ko uztailaren 11n, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoak jakinarazi zuen plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura etenda zegoela, Eusko Jaur-laritzako ingurumen organoak Cantoblanco parke eolikoaren proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren prozedura amaituko duen ingurumen ebazpena eman arte, plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura izapidetzeko beharrezkoa den judizio elementuzat jotzen zelako.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariaren 2024ko uztailaren 23ko ebazpenaren bidez, Añana, Erriberagoitia, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udal mugarteetan (Araba) Cantoblanco parke eolikia eta hari lotutako azpiegiturak egiteko Euskal Haizie SLk sustatutako proiektuaren ingurumen inpaktuaren aurkako adierazpena egin zen, ingurumen ondorioetarako soilik.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2024ko urriaren 8ko ebazpenaren bidez, ukatu egin zen Euskal Haizie SL sustatzaileak Añana, Erriberagoitia, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udal mugarteetan «Cantoblanco Parke Eolikia» (49,6 MW) proiektua gauzatzeko eta hari lotutako azpiegiturarako eskatutako aurretiazko administrazio baimena, ingurumen inpaktuaren adierazpena aurkakoa izan zelako.

2025eko maiatzaren 23an, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoak txostena egin zuen, eta, bertan, ondorioztatu zenez, bidezkoa da ez onartzea plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntari hasiera emateko eskaera; «izan ere, parke eolikoaren proiektuaren ingurumen inpaktuaren aurkako adierazpenean oinarrituta, plan berezia nabarmenki bideraezina dela uste da, ingurumen arrazoiengatik. Arrazoi horiek Cantoblanco parke eolikoaren proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egiten duen Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariaren 2024ko uztailaren 23ko ebazpenean azaltzen eta behar bezala zehazten dira».

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak du aztergai den espedientea ebatzeko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren Sailen Egitura 2023-2027 Legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18.4 artikulua ezartzen duenez, ingurumen organoak ebatzi ahal izango du ez onartzea ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta hasteko eskaera, baldin eta zalantzarik gabe uste badu plana nabarmen bideraezina dela ingurumen arrazoiengatik, edo aurkeztutakoaren funtsean antzekoa den plan batean ingurumen adierazpen estrategiko kaltegarri bat emanda badago.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97.1 artikulua eta Lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onesteko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32.1 artikulua adierazten dute plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin, izapidetu eta onetsiko direla.

Plan partzialak izapidetzeko prozeduran, 46/2020 Dekretuaren 31.5.a) artikulua ezartzen du ingurumen organoak ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua egingo duela, eta sustatzaileak plan partzialaren eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren hasierako onespun dokumentua egingo duela irismeneko dokumentua kontuan hartuta, eta udalak hasierako onespuna emango diola.

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 84. artikulua xedatzen duenez, prozedura amaitu egingo da, halaber, gerora sortutako arrazoiengatik jarraitzea materialki ezinezkoa denean. Ematen den ebazpenak arrazoitua izan beharko du beti.

Ingurumen organoak ez du onartu Euskal Haizie SLk egindako «Cantoblanco» parke eolikoaren plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntari hasiera emateko eskaera, ingurumen arrazoiengatik plana argi eta garbi bideraezina dela iritzita, eta, beraz, ezin da jarraitu planaren hirigintza izapideekin.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Amaiera ematea Euskal Haizie SLk formulatutako "Cantoblanco" Parke Eolikoaren Plan Berezia izapidetzeko prozedurari, ezin izan delako jarraitu, ez baita onartu, ingurumen arrazoiengatik, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta hasteko eskaera.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Euskal Haizie SLri jakinaraztea, bai eta Añanako, Erriberagoitiko, Iruña Okako eta Vitoria-Gasteizko udalei (Araba) ere.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 11ra

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**